



Antolakundeen eraldaketa-lantegi praktikoa

- Bizkaiko ETE -enpresa txiki eta ertain- eta antolakundeetako **kudeatzaileentzat** eta **zuzendari entzat**. Taldeko saioak antolakunde bakoitzaren errealitatea ardatz izango duten jarduerekin konbinatuko dira.
- Antolakunde bereko 1-3 pertsonak eman ahalko dute izena.
- Helburua da lantegia amaitzean parte-hartzaile bakoitzak **bere antolakunde-testuinguruan bertan** pertsonak oinarri dituen antolakunde-eraldaketa zertan datzan **bizi izatea**.
- Taldeko 4 saio egingo dira, 9:30tik 13:30ra, egun hauetan: datozen **urtarrilaren 20an, otsailaren 3an, otsailaren 24an eta martxoaren 16an**.
- Horrez gainera, **banakako saioak egingo dira antolakunde bakoitzarekin**.

Zenbat aldiz ez ote diegun entzun enpresa eta antolakunde txikiak zuzentzen dituzten pertsonei...

Oso nekatuta nago, ni bakarrik ari naiz gurdiari tiraka

Jendea ez da inplikatzeko

Hau gero eta zailagoa da; mugitzen ez bagara, itxi egin beharko dugu

Ez dut ordezkorik ikusten atzetik

Ingurunea konplexua da. Merkatua etengabe aldatzen da, gizarteak eboluzionatu egiten du, eta gure enpresan lanean diharduten pertsonek jadanik ez dute gauza bera bilatzen.

Orain arte erabili izan ditugun kudeaketa-tresnak ez dira eraginkorrak, zurrinak dira, ez dizkigute ematen espero ditugun emaitzak...

Egoerari **bira** ematerik ba al dago?

Bai, ahal da

Antolakundeen lehiakortasunak gaur beste eskakizun batzuk ditu, pertsonek beren antolakundeetan duten protagonismoarekin hertsiki lotuak.

Aurkikuntza hori egiteko gonbitea luzatzen dizugu



Nola:

Eraldaketa-prozesuetan laguntzen esperientzia handia duten pertsonen dinamizaturiko parte-hartze lantegi baten bidez. Gainera, lantegi horretan, prozesu horietako protagonistei entzungo zaie eta haiekin eztabaidatuko da. Horretarako, taldekako lau saio eta antolakunde bakoitzeko banakako bi saio egingo dira.

Noiz:

Taldekako saioak ostiraletan egingo dira, 09:30tik 13:30ra, 2012ko urtarrilaren 20an, otsailaren 3an, otsailaren 24an eta martxoaren 16an.

Norekin:

Lantegia Bizkaiko Foru Aldundiak eta Hobest-ek dinamizatuko dute, honek duen antolakundeei eraldaketa-prozesuetan laguntzeko esperientzia handia oinarri hartuta.

Norentzat:

Bizkaiko ETE eta antolakundeetako kudeatzaileentzat eta zuzendarientzat. Antolakunde bakoitzeko 1-3 parte-hartzaile.

Zer diote antzeko lantegietan parte hartu duten pertsonak?

*Metodologia oso egokia da.
Bide ematen dizu alde praktikoa ikusteko,
eta, aldi berean, atzetik kontzeptu-euskarri
sendo bat dagoela ulertzeko*

*Lantegiko saioetatik ilusio
handiz eta praktikan jartzeko
ideia askorekin
itzultzen naiz*

*Lantegiak nire erakundeko
kudeaketa bideratzeko
beste modu bat ikusarazi zidan*


*Badakigu pertsonen ahalmen handia
dutela eta ez garela baliatzen ari.
Ateratzen denean, beti harritzen gaitu,
gure espektatibarik onena
baino askoz hobea da*

Anima zaitetz eta eman ezazu izena oraintxe!!

Behar duzula sumatzen duzun aldaketa hori hasten lagunduko dizu!!

**Izen-ematea eta informazioa:
berrikuntzazerbitzua@bizkaia.net
944068084**

arbela



**BFA
DFB**

**Bizkaiko Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Bizkaia**